

# Gaztedik 1.700 plaza eskainiko ditu Aste Santurako jardueretan

- **Kirola, zientzia, teknologia eta hizkuntzak nagusi Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako jardueretan**

**2024ko martxoaren 20an.** Kutxabanken Gaztedi programak Aste Santurako programa aurkeztu du, **kirolaren, teknologiaren eta hizkuntzen** aldeko apustuarekin. Adin guztietako haurrentzako **1.700 plaza** baino gehiago dira, hurrengo eskola-oporretarako alternatiba ludiko eta hezitzaile bat eskaintzeko.

**Kirolaren arloan,** Gaztedi bezeroek kirol anitzeko hainbat udaleku izango dituzte: eskalada, padela, padbola, futbola, patinajea eta boleibola Araban eta Bizkaian. Kirol bakar batean oinarritutako aukerak ere egongo dira, hala nola piragua-, bela- eta surf-ikastaroak Bizkaian eta saskibalo-i-kastaroak Araban, Araskik antolatutako campusean.

**Zientzia eta teknologiaren esparruan** aukerak daude bai Araban, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan. Tailerretan hezkuntza-robotikako, programazioko eta bideojokoen garapeneko jarduerak egingo dituzte, besteak beste.

**Hizkuntzei** dagokienez, Gaztedi bezeroek euskaraz bizi eta ikasturtean ikasitakoa errepasatu ahal izango dute Bakaikuko barnetegi batean, baita sukaldaritza, antzerki eta abarreko hainbat jarduera egin ere euskarazko campusean goizetan; edo Leioako irlandar campusean izena eman ahal izango dute zuzendutako jarduera ludikoen bidez ingelesa hobetzeko.

Katalogoa, bertsio digitalean, **erakundearen webgunean dago eskuragarri,** eta Gaztedi kolektibokoek posta elektronikoz newsletter bat ere jaso dute informazio guztiarekin.

Gainera, oraindik zabalik dago **2024ko udarako hizkuntza ikastaroen programetan** izena emateko epea. **Aurten 750 plaza ditu.**

## **Kutxabanki buruz**

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta European arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.